



**AGINDUA JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZ ONARTZEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPLEGURAKO ORIENTAZIO, EKINTZAILETZA ETA BERRIKUNTZA ZENTROAREN GIZARTE KONTSEILUA SORTZEKO AGINDU-PROIEKTUA.**

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren 2025eko otsailaren 28ko Aginduari bidez hasten da Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza eta Berrikuntza Zentroaren Gizarte Kontseilua sortzeko agindu-proiektua egiteko prozedura.

Ekimen arauemai honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza eta Berrikuntza Zentroaren Gizarte Kontseilua sortzea, eta zentroaren eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea erregulatzea. Hori guztia, Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroak sortzeko Protokoloa betetzeko, zeina Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean onartu baitzen 2021eko apirilaren 28ko LXXIX. bileran; bertan ezartzen da zentro bakoitzean Gizarte Kontseilu bat egongo dela plangintza eta parte-hartze sozialerako organo gisa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 15.1 artikulua honela dio: "Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Aipatutakoa kontuan hartuta, prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuarekin bat etorrira agindu-proiektuaren testua idatzi ondoren, bidezko diren izapideak egin baino lehen onartzen da. Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa:** Aurretiaz onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzaitza eta Berrikuntza Zentroaren Gizarte Kontseilua sortzeko agindu-proiektuaren testua.

**Bigarrena:** Araua egiteko prozedurak jarrai dezala xedatzea, horretarako behar diren instrukzio-egintzak egiteko aginduz, bat etorri prozedura hasteko 2025eko otsailaren 28ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean azaldutako premisekin.

Vitoria-Gasteiz,

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,  
MIGUEL TORRES LORENZO

